



AUZOETAKO JAIK ALORREAN LAN EGITEN DUTEN AUZOETAKO JAI BATZORDEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK ETA 2025 URTEKO DEIALDIA: AUZOETAKO JAIK

1.- Xedea

Deialdi honen xedea Zumaiaiko auzoetako Jaiak antolatzeke dirulaguntzak arautzea da:

- Zumaiaiko auzoetako irabazi asmorik gabeko jai batzordeei norgehiagoka erregimenean emango zaizkien dirulaguntzak, festetarako urteko programa eta jardueraren garapenak edo/eta egitasmo eta ekitaldi zehatzak garatu edo burutzeak sortzen duen defizita arintzeko.

Dirulaguntza hauek, 2024-2027 epealdiko Zumaiaiko Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren IV. eranskinean jasota daude. (2023ko abenduaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 243 zk.).

Oinarri hauek arautzen dituzten laguntzak emango dira bai elkarreentzat beraientzat, bai elkarre-jardueraren xede diren kolektiboentzat prestatutako berariazko programak edo zerbitzuak aurrera eramateko, betiere Kultura Sailaren helburuekin bat datozen neurrian.

Berdintasuna bermatuko da Berdintasun Legea 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak jasotzen duenari jarraituta, zehazki, 28. artikuluan oinarrituta, kultura jarduerari buruzkoa.

Dirulaguntzaren kontzeptu guztiak 2025. urtean zehar egin beharko dira.

2.- Oinarri arautzaileak

Honako hauek arautuko dituzte dirulaguntza hauek:

- Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa.
- Dirulaguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa.
- Zumaiaiko Udalak eta bere erakunde autonomoek dirulaguntzak emateko ordenantza orokor arautzailea (2020ko abuztuaren 11ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 151. zk.).
- 2024-2027 epealdiko Zumaiaiko Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (2023ko abenduaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 243 zk.).
- Berdintasun Legea 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak jasotzen duena.

3.- Aurrekontuko diru-hornidura:

Deialdi honetan zehazten diren dirulaguntzak aurrekontuko honako partidetatik emango dira:

- 1 0300.481.338.00.06 2025 (179) Auzoak dirulaguntzak: 26.000 €

4.- Diruz lagun daitezkeen gastuak

Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak honakoak dira: diruz lagundutako jarduerarekin bat etorri eta oinarri hauetan finkatutako epeen barruan egiten direnak, hala nola: jarduerak sustatu eta



hedatzeko programak edo ekintzak, jaialdiak, folklorea, herri kirolak, eta arte plastiko edo eszenikoekin zerikusia dutenak, baita zientzia, literatura, ikus entzunezkoak eta abarrekin zerikusia dutenak ere (betiere, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, 31. art., Dirulaguntzen Lege Orokorrak, xedatzen duenarekin bat etorritik gero, hau da, onura publikoa edo interes soziala edo helburu publikoa duen jardueraren sustatzea edo bultzatzearekin zerikusia badute).

5.- Eskabideak aurkezteko tokia eta epea:

Pertsona fisikoek aurrez aurre edo telematikoki aurkez ditzakete eskabideak, eta pertsona juridikoek soilik telematikoki:

Aurrez aurre Zumaia Udal Erregistroan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozein modutan aurkeztuko beharko dira.

Telematikoki, Udalaren egoitza elektronikoan sartuta, haren webgunearen bidez (www.zumaia.eus).

Eskabideak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izango da, deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

6.- Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak

Eskabideak deialdi honen I. eranskinean agertzen den eredu normalizatuaren bidez egingo dira.

Zumaia Udalak, NISA Eren Nodoaren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horretaz gain, dirulaguntzen tramitazio administratiboa egiteko beharrezkoak diren egiaztapen guztiak ere egingo ditu. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada berariaz; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoen arteko datu- bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administraziokegindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunok aurretik edozein administraziori emandakoak.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikulua adierazten duena gogora ekarritik, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu-trukean, eta herritarrei buruzko datuak haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Horren ildotik, Zumaia Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu deialdi honetako dirulaguntza eskuratu ahal izateko, NISA Eren, datuen eta beste administrazio batzuen bitartekaritzarako plataformaren zerbitzuen bidez:

- Elkarrearen ardura duen pertsonaren NANA edo agiri baliokidea.
- Zerga betebeharrak beteak dituela.



- Gizarte Segurantzaren aurreko betebeharrak egunean dituela.

Zumaia Udalak ofizioz egiaztatuko du Udalarekiko betebeharrak betetzen direla.

Hona hemen Eusko Jaurlaritzako Elkarleen Erregistro Nagusiaren bidez egiaztatuko dituenak:

- Eusko Jaurlaritzako Elkarle eta Entitateen Erregistroan inskribatuta dagoelako egiaztagiria.
- Eskaera egiten duen erakundearen estatutuak.

Era berean, Udalak ofizioz egiaztatuko du, Zumaia Udaleko elkarleen erregistroan izena emanda duten elkarleekiko, ondorengoak:

- Identifikazio fiskaleko kodea.

Ezin bada datuen artekaritza plataformen bidez edo hartarako gaitutako bestelako sistema elektronikoen bidez kontsulta egin, salbuespen moduan eskatu ahal izango zaio eskatzaileari dokumentazio hori aurkezteko.

Eskabidearekin (deialdiko I. eranskina) batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Jardueraren memoria.
- Diruz laguntzeko aurkeztu den programari dagokion gastuen eta diru-sarreraren aurrekontua. (II. Eranskina)
- Elkarle edo entitatearen urteko gastuen eta diru-sarreraren aurrekontua.
- Beste instituzio eta erakundeetan egin diren dirulaguntza eskaerei buruzko adierazpena edo, halakorik bada, jaso diren dirulaguntzena. (III. Eranskina)
- Zinpeko aitorpena, dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzarekin zigortuta ez dagoela edo horretarako gaitasunik ez duela esanez, legezko debekuan sartuta ez dagoela azalduko duena. Debeku horietan barne izango da sexuagatiko diskriminazioaren ondorioz jasotako debekua, 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenaren 23.2 artikulua arautzen duen ildotik.
- Proiektuan emakume eta gizonen ikuspuntua noraino kontuan hartzen den zehaztu beharko da. (IV Eranskina)
- Euskararen tratamendua jardueraren hedapenean eta elkarlearen erabileran. (V. Eranskina)
- Hirugarrenari alta emateko datuak. (VI. Eranskina)

Edonola ere, aurkeztutako jarduerari buruzko dokumentazioaz gain, Udalak bestelako informazioa eskatu ahal izango die eskatzaileei, jarduera behar bezala baloratzeko.

Eskabidea ez badago behar bezala beteta edo ez badiu ezarritako baldintzak betetzen, instrukzio organoak errekerimendua egingo dio eskatzaileari, gehienez ere hamar egun baliodun luzaezineko epean gabezia konpontzeko, eta azalduko du, horrela egiten ez badu, ulertuko dela atzera egiten duela bere eskabidean, eta besterik gabe artxibatuko da, lehendik Ebazpena emanda, APELen 21. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Organo izapidegileak edozein unetan beharrezkoa ikusten duen jatorrizko dokumentazioa edo dokumentazio osagarria jaso ahal izango du hobeto egiaztatzeko betetzen direla dirulaguntza hauek arautzen dituzten arauetan eskatutako baldintzak.

7.- Dirulaguntzak adjudikatzeko balorazio irizpideak

Dirulaguntzak emateko ondorengo alderdiak hartuko dira kontuan:



1.- Urtean zehar Zumaia Udaleko Kultura Sailarekin eta beste elkarte batzuekin egindako elkarlana, koordinazioak, jarraipenak, proposamenak, informazio-trukatzeak: 5 puntu.

2.- Urtean zehar elkartean bazkide gisa, ekitaldietan parte hartzen edo bere jardueraren eragina izango duten pertsonen kopurua: 8 puntu.

3.- Elkarateak urtean zehar herrian betetzen duen egitaraua edo egiten dituen jarduera zehatzak: 50 puntu.
Elkarteen egitaraua eta jai egunetarako proposatzen dituzten jarduerak baloratuko dira.

4.- Aurrekontua; kopuruak, sarrerak, izaera orekatua: 20 puntu.

- Ekitaldiak eta gastuen arteko proportzioa: 10 puntu.
- Autofinantziazio maila: 10 puntu.

5.- Udalaren zeharlerroak diren aldetik, elkarateak Genero-berdintasuna eta Euskara bultzatzeko dituen irizpideak eta aurreikusitako neurriak: 7 puntu.

6.- Elkarte edo entitateak bere auzoan egiten duen lana eta auzokoekin lankidetzan aurreikusten dituen helburu orokorrak eta zehatzak: 10 puntu.

8.- Instrukzioa

Instrukzioa eta proposamena indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera egingo da.

Organo eskudunak:

- Instrukzioa: Kulturako arduraduna.
- Ebazpena: Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzordeari egokituko zaio, Udalaren administrazio antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenei eta aldi baterako eskuordetzei jarraikiz.

Dirulaguntza emateko prozedura izapidetzea Kultura Sailaren eginkizuna da, eta hari dagokio behar diren ekintza guztiak egitea, ofizioz, ebazpen proposamena gauza dadin beharrezkoak diren datuak zehaztu, eskuratu eta egiaztatzeko.

Kultura Sailak dirulaguntza eskaerei buruz aurrez egingo duen ebaluazioarekin hasiko da instrukzio fasea. Aurre ebaluazioak egiaztatuko du, eskatzaileak dirulaguntzaren onuradun izaera eskuratzeko ezarrita dauden baldintza guztiak betetzen dituela eta aurkeztutako dokumentazioa osatua eta egokia dela.

Kulturako arduradunak dirulaguntza deialdira aurkeztutako eskaeren balorazio txostena egingo du aipatu balorazio irizpideen arabera.

Eskaerak ebaluatu ondoren, eta Kulturako Batzordean informatu ondoren, ebazpen proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta, eta organo eskudunari helaraziko dio ebazpena eman dezan.

Ebaluazioaren emaitza dirulaguntza ez ematekoa baldin bada, dagokion ebazpena eman aurretik, 10 eguneko epea eskainiko zaie interesdunei entzuteko tramitean nahi dituzten alegazioak aurkez ditzaten.



9.- Ebazpena

Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzordeari egokituko zaio ebaztea, Udalaren administrazio antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenei eta aldi baterako eskuordetzeei jarraikiz.

Prozeduraren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea 3 hilabetekoa izango da. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik aurrera zenbatuko da epea. Gehieneko epe hori igaro eta ebazpena jakinarazi ez bada, interesdunek dirulaguntza emateko eskaera administrazio-isiltasunez ezetsitzat jo ahal izango dute.

Prozeduraren ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan xedatutakoaren arabera.

10.- Dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa

Dirulaguntzak ezingo du inola ere eskatzaileak egingo duen jardueraren gastua baino handiagoa izan (ez bere horretan, ez eta beste Administrazio Publiko edo bestelako erakunde publiko nahiz pribatuk emandako dirulaguntzak gehituta).

Ordainketa 2 zatitan egingo da erakunde onuradunaren titulartasuneko kontu batera banku-transferentzia bidez:

- Lehenengo ordainketa: onartutako dirulaguntzaren % 70 ebazpena jakinarazten denean.
- Bigarren ordainketa: gainerako % 30 dirulaguntza justifikatzeko eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Deialdiko xede diren ekintzak egiteko behar diren diru-zenbatekoen ordainketa aurreratuak egitea baimen dezake alkate-udalburuak. Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak, 38/2003 legeak 34. artikulua egiten duen araututakoaren arabera egingo dira aurrerapen horiek. Horrez gain, Udaleko dirulaguntzen ordenantza arautzaileak dioena izango da kontuan.

11.- Zuriketa

Behin diruz lagundutako jarduera amaituta, ekintzen memoria eta frogagiriak aurkeztuko dira, betiere jarduera burutzen den urtearen hurrengo urtarilaren 15a baino lehen.

Agiri hauek aurkeztu beharko dira dirulaguntza justifikatzeko:

a) Diruz lagundutako programa edo jardueraren memoria xehakaturik, euskaraz. Bertan adierazi beharko dira egindako jarduerak eta lortutako emaitzak. Pertsonen buruzko datuak sexuaren arabera bereizita emango dira.

b) Justifikazio-memoria ekonomikoa, jatorrizko egiaztagiriez osatua.

- Aurkeztutako fakturen zerrenda zenbakitua + faktura guztiak + ordainagiriak. Betiere faktura hauek dagozkien zergak aplikatuta izan beharko dituzte.
- Fakturak eta zerga edo atxikipenak ordaindu izana egiaztatzen duten agiriak.
- Diru-sarreraren eta gastuen balantze ekonomikoa. Diruz lagundu den jarduera finantzatzeko baliatu diren bestelako diru-sarreraren zerrenda xehakaturik, haien zenbatekoak eta jatorria adieraziz.



- Jarduera bererako beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik jasotako dirulaguntzak edo laguntza ekonomikoak egiaztatzen dituzten agiriak ere aurkeztuko dira edo, horrelakorik ezean, ez dela beste dirulaguntzarik jaso egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena.
- Jasotako dirulaguntza osoa diruz lagundutako jarduerak gauzatzeko erabili dela egiaztatzen duen egiaztagiria, dirulaguntza jaso duenak eginga.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean betetzen direla egiaztatzen duen agiria, baldin eta goian zehaztu den moduan Udalak kontsultatzeko aukeraren aurka azaltzen bada.
- Halakorik bada, aplikatu gabeko diru-gerakinen itzulerari dagokion ordainketa-agiria eta haiengandik eratorritako interesena.

c) Dokumentazio grafikoa (kartelak-egitarauak) edo ikus-entzunezkoa (halakorik bada).

Horrez gain, Udalak Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak, 38/2003 legeak bere 30., eta 31. artikuluetan egiten duen araututakoaren arabera, beharrezkoak diren dokumentuak eskatzeko aukera izango du Udalak.

12. Onuradunen betebeharrak

Dirulaguntza emanez gero, entitate onuradunaren obligazioak izango dira, arau orokorretan adierazitakoez gain, honako hauek:

— Dirulaguntza jaso duen jarduera edo proiektua garatzea eta oinarri hauek erabakitako moduan justifikatzea.

— Administrazioak burutu beharreko egiaztatze-jarduerak eta udal kontu-hartzailetzak egin beharreko finantzen kontrolak erraztea.

— Jarduera berak jaso dituen laguntza publiko guztiak jakinaraztea erakunde emaileari. Jasotako laguntzen guztizko zenbatekoa inoiz ezingo da izan jardueraren kostua baino handiagoa.

— Dirulaguntza ematean kontuan hartua izan zen egoera bat aldatuz gero, aldaketa horren berri ematea.

— Erakunde emailearen ardura duen talde teknikoari galdetu eta horren baimena lortu gabe, aurreikusitako gastuak edo dirulaguntza jaso duen proiektua nabarmen aldatzen badira, jasotako kopuruak itzuliko dira.

— Diruz lagunduko diren jarduerak Zumaia Udalak indarrean dituen euskara eta berdintasun irizpideak betetzea.

13.- Publizitatea

Oinarri hauen baitan emandako dirulaguntzen onuradunek jarduerak iragartzeko erabiltzen dituzten euskarri guztiak euskaraz edo ele bietan (euskara lehenetsita) izango dira.



Oro har, komunikaziorako erabiltzen diren materialetan, honako baldintzak bete beharko ditu: hizkuntza modu ez-sexistan erabiltzea; emakumeenganako edozein irudi diskriminatzaile nahiz estereotipo sexista saihestea, eta berdintasun balioak, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta rol aniztasuna eta genero identitateak jasoko dituen irudia sustatzea. Ez da inongo jarrera matxistarik onartuko.

Onuradunek adierazi egin behar dute beren egitarauak edo jardunak Zumaia Udalaren dirulaguntza jaso duela: beharrezkoa izango da Udalaren logoa azaltzea jarduerak iragartzeko prestatzen dituzten kartel, egitarau, informazio eta hedabide guztietan.

14. Dirulaguntza itzultzea

Dirulaguntza eman deneko jardueraren gastuaren aurrekontuari dagokion gastua justifikatzen ez bada, dirulaguntza osoa edo zati bat eta dagokion berandutze-interesa itzuli beharko da, Zumaia Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzaren 25. artikulua arautzen duen prozedura jarraituz.

15. Oinarrien interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioaren harira edozein zalantza sortuz gero, dirulaguntza emateko ardura duen organo berari dagokio horri buruz erabakitzea.